



KIROL-AISIALDIKO MAHAIA

2023ko martxoak 16

GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Abian den proiektua:
 - Getxo Bono 2023
 - 2022 eta 2023ko kontrataziorako laguntzak
 - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
 - <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina
 - Flysch Bizkaia proiektua
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua
 - Getxo Itsas Hub & Getxo Sormen Hub
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

BERTARATUAK: (% 19)

DEITUTAKOAK		BERTARATUT AKOAK	ETORRI EZ IZANA	
			Arrazoa emanda	Arrazoirik eman gabe
Sektoreko ordezkaria eta Polaris Nautika Eskolako kudeatzailea	Héctor García	X		
2 Millas	David Benavente	X		
Galea nautika	Javier Gutiérrez			X
Marmitako Sailing	Eduardo Arostegui			X
Sailing & Wine	Natxo Taibo			X
Ballestrinque Nautika	Alejandro Bracho			X
Arriluze Nautika	Roberto Santos			X
As de Guía	Javier Peña			X
Sotavento Nautika Eskola	Alfonso Hernández			X
Jose Luis de Ugarte Bela	Eduardo Santamarina			X



Eskola				
Pakea Bela Eskola	Gonzalo Terceño			X
El Bote Tours	Juan Olabarria			X
Getxo Watersports Jet	Iñigo Martínez			X
Planeta Jets	Olga Zabala	X		
Getxoport	Jose Miguel Larrinaga			X
La Mar de Bien	Jose Muro			X
Acero Surf Eskola	Eneko Acero			X
La Salbaje Surf Eskola	Miguel Hidalgo eta Richar Gumb	X		
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolas			X
La Kantera Skate Eskola	Borja			X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez			X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga			X
Loizaga Prest	Imanol Loizaga			X
Geotxiki	Aintzane Goffard			X
Ekobideak	Imanol López			X
Euskadi Trek	Marisa Lago	X		
Fangaloka Style	Sergio Vadillo Gil			X
Iparapente	Aritz Irurizaga			X
Parapente Bizkaia	Wiso	X		
Deskonecta	Begoña Oca			X
Hegohaize Foil	Ibai Egurrola			X
Getxo Water Bikers	Nagore			X
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene Zabalgogea	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogea, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Oro har, bertaratuek udarekin eta beroarekin lotutako urtaro-zerbitzuak eskaintzen dituzte. Beraz, eguraldiak baldintzatzen du denboraldia.

Euskadi Trek enpresako Marisa Lagok adierazi du beste urte batzuetan ibilketa nordikoak egin dituela, baina aurtan ez. Zalantzan jarri da ea jendeak interesik ez



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

duelako izan den hori edo jarduera ez delako behar bezala jakinarazi. Horri dagokionez, Mirene Zabalgoeazkoak gogorarazi dio sektoreak doako aholkularitza-zerbitzua duela eskura, zerbitzuen zabalkundea eta komunikazioa hobetzeko aholkularitza jasotze aldera.

3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Getxo Bono 2023

Mirene Zabalgoeazkoak kanpainari atxikitako establezimendu kopuruaren berri eman du: 278, eta jakinarazi du, ostalaritza mahaiak eskatuta, ostalaritzako sektoreak ez duela parte hartuko Getxo Bono 2023 kanpainan. Era berean, joan den urtearekin alderatuta egin diren aldaketak zerrendatu ditu:

- Bonu gutxiago pertsonako, 6 guztira: 5 €-ko 3 deskontu-bonu eta 10 €-ko 3.
- Establezimendu bakoitzean trukatzeko bonuen gehieneko muga. 1510 €-ko hobaria establezimendu bakoitzeko.

Bestalde, ekonomia sustapeneko arlotik egindako aholkularitza-lana balioetsi du. Izan ere, osatu gabeko faktura sinplifikatuak egiten zituzten establezimenduak bisitatu dituzte, eta enpresa aholkulariak bisita egin ondoren, fakturen nahitaezko eremuak zuzentzea eta faktura sinplifikatu zuzenak egitea lortu dute. [GetxoBonori buruzko informazio gehiago](#)

b) 2022ko kontrataziorako laguntzak

14 laguntza eman dira. [Informazio gehiago.](#)

Ez dakigu noiz aterako den 2023ko deialdia.

c) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

Helmuga turistiko adimenduna (HTA) programak helmugen lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez. Helmugak ziurtatzeko, 97 betekizun eta 261 adierazle dituen metodologia bat erabiltzen da. Horren bidez, helmugaren heldutasun-maila baloratzen da, eta ekintza-plan bat du ondorio. Getxon abian jarri den metodologia praktikoan, udal arlo guztiek osatutako diziplina anitzeko lan-mahaiak osatu dira, bost alderdi lantzeko: gobernantza, berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna eta irisgarritasuna.

d) <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina

Arloko teknikariak esan du planak argitaratuta daudela: [Getxo - Zer egin - Zer egin.](#) Gainera, jakinarazi du Getxo FITUREn egon zela plan horiekin eta Flyscharen proiektuarekin.

e) Flysch Bizkaia proiektua



Aditzera eman da Flyscharen webgunea martxan dagoela eta FITUREn aurkeztu zela: [Flysch Bizkaia](#). Gainera, Juan Jesús Blancok adierazi du webgunean zenbait aldaketa egiten ari direla agenda hobetzeko jarduerekin.

f) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

DEAPIE programari buruzko informazioa eman da: [Getxo - ZER IKUSI - deapie ibilbideak](#) eta ezarritako ibilbide berriei buruzko informazioa eman da: Fidel Iturria, Horacio Echevarrieta eta Antonio Basagoiti.

g) Getxo Itsas Hub & Getxo Sormen Hub

Mirene Zabalgogezkoak jakinarazi du datorren maiatzaren 5ean amaituko dela Itsas Hubeko egonaldia eta zirriborroan daudela emakida berriak arautuko dituzten oinarriak. Juan Jesús Blancok oinarriek izango dituzten aldaketetako batzuk aurreratu ditu, lanpostu finkoak eta txandakakoak gaitzeko sektorearen eskaerak aztertu ondoren.

Zirriborroari buruzko informazioa, deialdia onartzearen baldintzapean:

- 2 urteko aldia (urtebete, luzapen 1 izateko aukerarekin).
- Kirol-portuan beste egoitza bat bilatzeko ahalegina egingo da, hala badagokio, portuaren berrantolaketa ezagutu eta gauzatu ondoren.

LOKALAREN BALDINTZAK

Lokalak eraikitako 230 m2 ditu, eta konfigurazioa honako hau da:

- 3 batzar gela txiki
- 20 pertsonako edukiera duen erabilera anitzeko aretoa (1)
- 1 ofizio-batzar gela
- Komunak
- Armairuen gunea eta atondoa.
- Bi gelatan multzokatutako 22 lanpostu

Gainera elementu komunak ditu: *office* bat (1. zona), bilera gela bat (2. zona), komunak eta atondoa.

PREZIOAK

- **A zona:** Lan espazio finkoa. Proiektu bakoitzak lantoki finko bat izango du, lortutako puntuen arabera adjudikatuko dena. 90,75 euro (BEZa barne).
- **B zona:** Erabilera malguko edo txandakako lan espazioa. Ez da lan egiteko toki finkorik egongo. 48,40 euro (BEZa barne).

Deialdia argitaratzen denean jakinaraziko da.

4. Ideia eta proposamen berriak.

Sektorea kezkatuta dago portuaren adjudikazioaren etorkizunarekin.



Bilera egin aurretik, parapente-sektoreak jarduera arautzeko proposamena egin zuen. Horri buruz, aditzera eman da txosten bat egin zela, eta txosten horretan jarduera erregulatzea komeni zela jaso zen. Garatzeko oniritziaren zain.

Horri dagokionez, Parapente Bizkaiako Wiso ados dago jarduera arautzearekin. Are gehiago, ikuskapenak maizago egiteko beharra aipatu du.

2 millas eskolako David Benaventek informazioa eskatu du 2022ko dinamizazioarako laguntzen L4 lerroaren justifikazioari buruz, justifikazioa egin ondoren % 25 ordaintzeke baitago. Gainera, ebazpenean hainbanaketa bat egin zenez eta ez zenez iritsi enpresa bakoitzari eman beharreko gehieneko zenbatekora, galdetu du ea justifikazioa egin duten enpresen artean banatu daitekeen justifikazioa egin ez dutenen dirua. Dagokion sailari galdetuko zaio. Dinamizazio lerroen harira, Juan Jesús Blancok esan du 2023rako % 5eko igoera egongo dela L4 lerroan, iaz jasotako eskaeren kopuruak gora egin zuenez, horiei erantzuteko. Horrez gain, oinarriak laster argitaratuko direla dio.

Mirene Zabalgogezakoak jakinarazi du taxien ordenantza berria onartu dela, taxietan publizitatea egiteko aukera barne hartzen duena (bertaratuentzako aukera izan daiteke). BAO, 50. zk., 2023ko martxoaren 13koa. Taxien sektoreak publizitate-proiektua prest duenean, informazioa gainerako sektoreei helaraziko zaie.

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea apirilaren 27an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

KIROL-AISIALDIKO MAHAIAREN ERABAKIAK (2023/03/13):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Surfeko eta parapenteko ikuskapen gehiago egiteko aukera kontsultatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Justifikazioa egin duten enpresak dinamizatzeko L4 lerroa ebaztea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Hainbanaketa egonez gero eta norbaitek justifikazioa egiten ez badu, dirua justifikazioa egin duten enpresen artean banatu daitekeen galdetzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Taxietako publizitatearekin lotutako informazio interesgarria helaraztea	Zerbitzuko teknikak (taxiak)	Taxien sektoreak publizitate-proiektua prest duenean